

**Gorka Urtaran Agirre, EAJ-PNV udal taldeko bozeramaleak, indarrean dagoen Udalbatzaren Araudi Organikoko 234 eta 235. artikuluek ezarri dutenarekin bat, Hirigintzako zinegotzi eskuordearengana jo du eta ondoko galdera hau egin du Hirigintza ta Eremu Publikoaren batzordeko hurrengo bileran ahozko erantzunak jasotzearen ondoretarako**

---

2013ko urrian, EAJ-PNV talde honen Gasteiz Antzokiari buruzko galdera bati erantzunez, hirigintza zinegotziak aipatu zuen, proiektu hori martxan jarri baino lehen, beharrezkoa zela ikerketa historiko-arkitektoniko bat egitea, aztertzeko ur depositoa eraikuntzaren beharrak eta aukerak.

Hau guztia kontuan hartuta, udal talde honek ondoko galdera formulatu du:

- Dagoeneko, burutu al da ikerketa historiko-arkitektoniko hori?
- Zergatik atzeratu da horrenbeste?
- Zer nolako tramiteak garatu behar dira lanak esleitu eta hasi baino lehen?
- Uste al du zinegotzi delegatuak Gasteiz Antzokiaren lanak bukatuak egongo direla urtea bukatu baino lehen, hau da, Urban proiektuaren epe barruan?

Vitoria-Gasteizen, 2015eko urtarrilaren 20an

**Gorka Urtaran Agirre**  
EAJ taldearen bozeramailea